



ETORKIZUNA AURREIKUSTEN

ERRAMUN OSA

Iraganean, 'egiten' saiatu gara, pentsatu ondoren, 'ekiten' bainoago. Beharbada, mementoko premiek eraman gaituzte horretara. Izan ere, hizkuntzari doakionez, XIX. mendean zehar, hainbatek iragarri zuten euskara mende horren akabura ez zela iritsiko; zorionez, iragarritakoa ez zen bete. XX. mende hasieran, beste horrenbeste gertatu zen. Arrazoiak ugariak ziren, besteak beste, gure hizkuntza hitzunen behar berriak asebetetzeko atzean geratzen ari zen; jende andana landa-eremutik eta estatuko beste lurralde batzuetatik ekarri zuen industrializazio azkarra izan zen; hiria modernitatearekin eta erdararekin lotu zen; eta euskara, berriz, desagertze bidean zihoan gizarte-eredu batekin lotzeko joera indartu zen....

Gabezia horiei itzuri egiteko eta euskara biziberritzeko asmoz, batzeko eta beharizan berrietarako gaitzeko, XX. mendearen hasieran, bilkura antolatu zen Hendaian. Batzarrak, tamalez, ez zuen aurrerabiderik izan, eztabaida sutsuak eta desadostasun ugariak izan baitziren, tartean estrategia politiko kontrajarrietatik eratorritako susmoak eta interesak. Haatik, kezka horrek iraun eta hedatuz joan zen, harik eta 1917-19 aldian, gizartea modernizatzeke,

hezkuntza bultzatzeko, kultura eta hizkuntza indarberritzeko asmoz, egitasmo indartsua abian jarri zen arte, erakundeetan nagusitasuna irabazi zuten abertzaleen eskutik.

Alabaina, susperraldiak zailtasun ugari idoro zituen bidean. Alde batetik, alderdi eta sindikatu batzuen errezeloak, euskararen eta euskal kulturaren sustatzea Espainiako batasuna ahultzen zuela uste zuten eta. Beste alde batetik, egoera politiko ezegonkorra, besteak beste, Espainiako garai hartako aginte-egituretan militarrek pisu handia zutelako. Horrela, lehen mende laurdenean ereindakoa etenda geratu zen 1936ko kolpeak porrot egin, gerra zibila piztu eta matxinatuek gerra zibila irabazi ondoren, diktadura ezarri zutelako... baina sugarrak geratu ziren, indarra berriz hartzeko haize egokiaren bila. 1950eko hamarkadaren bukarran, ekonomiaren goraldiak ahalbidetu zuen familiek ikastolen mugimenduari berrekiteko bitarteko ekonomikoak eskuratzea. Eta mugimendua zabaldu ahala, bestelako beharizanak ernatu ziren: irakasleak bilatzea eta prestatzea, materialak sortzea, hizkuntza beharizan berrietarako batzea eta eguneratzea, pertsona helduen alfabetatzea... eta hizkuntzarekin batera doan kulturaren indarberritzea ere bai.

Diktadorea hil ostean berreskuratu berri ziren autogobernu erakundeek haize hori, askotarikoa zen gizarte zibil hori, izan zuten abiapuntu... bai eta diktadorea hil ostean, alderdien arteko norgehiagoka eta indarkeriaren iraupena galga eta aukera ugariren izorratzaile. Dinamika sozialek kostata egin dute aurrera, aldiari aldiko dinamika eta estrategia politikoen igurtziek eta enbategen erasanda... Orain, aldiz, bihar-etziko gizarteari begira jarri behar gara. Oso bizkor aldatzen eta zahartzen ari den eta, bidena-bar, oso denbora laburrean neurritz gaitu teknologizatu den gizarte bati begira jarri behar gara. Ekonomia ez ezik, hizkuntza, kultura eta balioetan gure lurraldea txiki geratzen ari zaion gizarte baten biharkoan jarri behar dugu begirada!

Badira diotenak prospekzioan, gizarteetako joerak eta norabideak antzemateko

egiten diren azterlanak eta hausnarketak alperrekoak direla. Ni nago, ordea, horixe dela falta duguna. Behinola poetak iragarri bezala, ideiez hustutako biltegia berriz betetzeko ahalegina egin behar dugula! Iraganetik baikatuz eta komeni baita goazen bidetik nora goazen aurrerara, atzokoan finkatuz, bihar etziko politika publikoak eta askotariko eragileen ahaleginak uztartzeko eta norabide berdintsuan herronkatzeko. Horixe izan zen, bere txikian, joan den uztailaren 21ean, Euskaltzaindiaren eta Sabino Arana Fundazioaren eskutik antolatutako “*Etorkizuneko euskal gizartea. Euskara erabiltzeko eremu berriak*” mintegiaren helburuetako bat. Argitalpen honetan jaso dira orduan kaleratutako zenbait ideia eta eginiko hausnarketez eta bestelako artikuluek osatu dira. Izan bedi ahalegin hau ekarpen xume bat, beste ideia eta gogoeta batzuk gehituta aberastu beharko duguna!

IZASKUN ARALUZEA ITZA (BILBO, 1994).

2016an Arte gradua amaitu zuen EHUn eta Ikerketa eta sorkuntza masterra egin zuen unibertsitate berean 2018an. Marraketan aritzen da batez ere, eta honako erakusketa hauetan parte hartu du: *Conf19*, Galeria Aire, Bilbao (2020), *Polita zatekeen*, Torrene aretoan, Algorta (2019); *Dime, dame*. Aire galeria (2019); *I_A_U*, Bizkaiko Batzar Nagusiak, 2018; *Hire maitale traketsa*, Harriak programa, (2018). Aurten *Eremuak # 7* aldizkarian kolaboratu du artikulu labur batekin.

